

IBILBIDEA

GoodPlanet fundazioko kidea da Jacqueline Gooffart. Irabazi asmorik gabeko fundazioak ekologia sustraitu nahi du herritarren kontzientzietan eta ingurumena babestu dezaten hezi nahi ditu. Helburu horiek betetzeko tresna ezin hobea da "Home" filma, duela ia hiru urte estreinatu zena eta ikuslearen kontzientzia sakon astintzen duena. Film horrekin etorri da Jacqueline Gooffart Tolosara.



Iau pertsonatik bat gizakia duela 6.000 urte bizi zen bezala bizi dela gaur egun. Hala ere, sinetsita gaude urte guttian marrubiak eskura dituen dela hobeto bizi dena.

Eta oso oker gaude horretan. Ni jaio nintzenean Lurrean 2.000 milioi pertsona bizi ginen. Gaur egun, 7.000 milioi gara. 70 urtean izugarri igo da biztanle kopurua eta horrek zer pentsa eman beharko liguke. Izan ere, jende guztia gure modura biziko balitz bi edo hiru planeta beharko genituzke biztanle guztien oinarritzko beharrak ase ahal izateko.

Ongizatea akaso gaizki ulertu da.

Begira, adibidez filmean Malaysiako irudi ikusgarri batzuk ikus daitezke. Ingurune oso zabala erabat deforestatu dute palma-olioa modu basatian ekoizteko. Eta olio mota hori kaltegarria da osasunarentzat, baina elikagai industrialetan asko erabiltzen da. Deforestazio hauek izugarriak dira, tokiaren ingurumen guztia erabat birrintzen dutelako, bai landaretza eta baita animaliak ere. Ez dute batere begirunerik eta gauza asko galtzen dira ekonomiak agindutako ergelkeria dela-eta. Hori al da ongizatea? Norentzat?

Deforestazioak, pestizidak, ongarririk, monolaborantza... Filmak asko hitz egiten du gaur egungo neurrigabeke-riaz.

Gauzak beste modu batera egin daitezke, modu zentzudunagoan eta bizitzaren erritmoa errespetatuz. Gaur egun saiakerak egiten ari dira beste laborantza mota bat lantzeko, naturarekin lotuta dagoena, gutxieneko harmonia bat duena. Peruko Andeetan duela hamarkada batzuk gaur egungoak baino uzta hobeak jasotzen zizuten, oparagoak eta ugariagoak. Ez zuten inolako produktu kimikorik eta makinarik erabiltzen, batez ere burua erabiltzen zuten eta naturari entzuten zioten. Gauzak beste modu batera egin daitezke, eta

